

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun, gazteek helduarora igarotzerako bidean zein unibertsitate gradu aukeratzen lagunduko dien orientazioa ez da eraginkorra izaten. Orientazio testak eta hitzaldiak garrantzitsuak izan daiteke, baina hori guztia teoria hutsa da, oso abstraktua, eta gazteek zerbait falta zaiela sentitzen dute. Entzundako teoria guzti hori praktikara eramatea garrantzitsua da aukeraketa bat egin baino lehen. Izan ere, urte osoan gustoko ez duzun gradu bat egin behar izatea etsigarria eta denbora galtzea izan daiteke. Hori ekiditzea garrantzitsua da.

Nola dakizu zuzenbidea gustatzen zaizula, ez baduzu inoiz probatu, ez bazara inoiz klase batera joan? Nola jakin psikologiaren gaiari buruz lantzen dena interesatzen zaizula?

AUKERAKETA BIZI betiko orientazio programa bat baino askoz gehiago da:

Ikasleek gradu batean ematen diren gaiei eta egiten diren ekintzei eta programei buruz ez dute jakintzarik. Ematen dena ez dakitenez, zalantza horrekin datoz guregana. Guk haien preferentziei buruz galdetu eta nahiago dituzten baldintzak aukeratzen eta zehazten ditugu gure antolaketan. Erabilgarri dauden unibertsitateak, egunak, graduak... finkatzen ditugu eta ikaslea dagokion taldera bideratzen dugu. Talde bakoitzari ordutegiaren eta lekuaren datuak hornituko zaizkio eta horrela ikasleei klaseetara agertzea ahalbidetuko zaie. Beste gradu bateko klaseetara joan nahiko balute, prozesu bera errepikatu beharko litzateke.

Gu euskal unibertsitateekin harremanetan gaude eta gure programa adostuta dago erakunde eta parte-hartzaile guztien onerako.

OHARRA: gure lan guztia adimen artifiziala erabili GABE egin da, proiektuaren logoa izan ezik, ChatGPT bidez diseinatu dena.